

Gai ordena:

1- Landa eremua

2- Foru Aldundiaren partaidetzako aurrekontuak

3- Eskola berriaren kokapena

1- Landa eremua

Yohana Garcia Aranzadiko teknikaria etorri da lantaldearen bilerara eta martxan dauden ekimenak azaldu dizkigu. Laburbilduz aurten diru laguntza jaso ditu udalak: Jauralaritzaren 24.000 euro landa eremuaren babes eta zaintza lanak egiteko eta Aldundiaren 6000 euroko laguntza udalak terrenoak eros ditzan. A.G.-ek komentatu du bazegola 6 hektareatako terreno interesgarri bat baina baso elkarteak egindako balorazioa altuegia dela udalarentzat.

X.I. taldekideak proposatu du dirua ibai bazterrak garbitzeko erabili daitekela. Bestela ere auzolanean planteatu daiteke lan bat da. Edozein kasutan Goierrri mailan planteatu beharreko kontu bat dela uste dugu.

2- Foru Aldundiaren partaidetzako aurrekontuak

Aldundiak eskualde mailan prozesu partehartzaile bat abiaraziko du Goierrin datozen 4 urtetan 2 milioi euro nola inbertitu behar diren eztabaidatzeko. Prozesua herritar guztiei zuzenduta dago eta horretarako fitxa bereziak jasoko dira. Apirilak 29 19:00etan batzar ireki bat egingo da herriko kulurgunean proposamen guztiak mahai gainean jarri eta eztabaidatzeko. Gure lantaldeari dagokionez kideei eskatu zaie hurrengo bilerarako proposamenak ekartzeko.

3- Eskola berriaren kokapena

O.A. arkitektoak etorkizunean egin beharko den eskola berriaren kokapen posibleak zeintzuk diren azaldu dizkigu. Eskolaren eraikuntza Jauralaritzak hartuko luke bere gain baina udalak urbanizazioa egin beharko luke, horregatik kokapen ezberdinek abantaila eta desabantaila desberdinak dituzte.

Laburbilduz aukera hauek aurreikusten dira:

1. Gaur egungo leku berean
2. Frontoi alboan
3. Partzela dotazionalean
4. Ordiziko bidean ezker eskuin
5. Geltokian

Hezkuntza Sailekoekin hitz egindakoaren arabera, bete beharreko baldintzak ondorengoak dira.

$$1300 \text{ m}^2 + 100 \text{ m}^2 \text{ jangela} + 300 \text{ m}^2 \text{ portxea} = 1700 \text{ m}^2$$

Baina aukera legoke frontoi alboan egingo balitz azalera txikiagoa izateko:

$$1700 \text{ m}^2 - \text{jinasioa} - \text{portxea} = 1100 \text{ m}^2$$

Beraz, kokapenaren arabera eraikinaren azalera desberdina izango da. 1700 m²–ko azalera behar da gaur egungo eskoletan, Ordiziko bidean eta geltokian eta 1100 m² frontoi alboan eta partzela dotazionalean.

Honetaz gain, kanpoko eremu zabal bat behar da 40x20m ko gutxieneko azalerarekin.

Bi baldintza hauek kontuan hartuta:

1. DOTAZIONALA:

HAPOk 429 m² azalera ematen dio eta B+2 perfila du. 3 solairuko 21x17,5m eraikina egitea posible izango litzateke, eskatutako azalera beteaz.

Arazoak: orohar, eskola eraikinak laukizuzenak izaten dira eta hau karratu formakoa izango litzateke. Bideragarria den ziurtatu behar da.

2. FRONTOI ALBOAN:

2 edo 3 solairuko eraikina egitea posible litzake. Plana aldatu beharko litzateke.

3. GAUR EGUNGO ESKOLA:

Urbanizazioan lur mugimendu handia egin beharko litzateke. Eraikinaren fondoa aldatu beharko litzateke hormaren kontra egin beharko litzatekeelako. 2 solairutan ez du azalera betetzen eta hiru solairukin juxtu juxtu ematen du. Kanpoko azalera sartzeko eremua eskasa geratuko litzake.

4. GELTOKIA:

Erreka eta trenaren erretiroak kontuan izan behar dira, baina programa 2 edo 3 solairutan sartuko litzateke.

5. ORDIZIRAKO IRTEERA:

Hainbat kokaleku aztertu dira, baina orohar lur mugimendu handia egin beharko litzateke.